



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA
ETXEBIZITZA SAILA
Ingurumen Sailburuordetza
Ingurumenaren Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL Y VIVIENDA
Viceconsejería de Medio Ambiente
Dirección de Administración Ambiental

EBAZPENA, 2019ko urriaren 15ekoa, Ingurumen Administrazioaren zuzendariarena, Ibarzaharra 04, AIS_IB_RM04 industria- eta zerbitzu-arearen Hiri Antolamenduko Plan Bereziari dagokion irismen-dokumentua ematen duena, Sestaoko eta Trapagarango Udal Plangintza Urbanistikoaren Bateragarritze Planaren hiri-lurzoruan.

AURREKARIAK

2019ko uztailaren 22an, Trapagarango Udalak ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntari hasiera emateko eskaera egin zuen, zeina Ibarzaharra 04, AIS_IB_RM04 industria- eta zerbitzu-arearen Hiri Antolamenduko Plan Bereziari dagokion Sestaoko eta Trapagarango Udal Plangintza Urbanistikoaren Bateragarritze Planaren hiri-lurzoruan, bat etorritik Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrak (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko Legeak (abenduaren 9ko 21/2013 Legea) xedatutakoarekin.

Planaren zirriborroa, legeria sektorialean eskatutako dokumentazioa eta hasierako dokumentu estrategikoa jasotzen ditu eskaerak.

Kontsulten izapidea egin da abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikulua eta, Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikulua aplikatuz. Administrazio publiko eta pertsona interesdun hauei egin ziren kontsulta ingurumen-organismoak:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Ura, Uraren Euskal Agentzia.
- IHOBE. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiaren Ingurumen Jasangarritasun Saila.
- Ekologistak Martxan Bizkaia.
- Eguzki, Eguzkizaleak Elkarte.

Halaber, eragindako administrazio publikoen eta pertsona interesdunen eskura jarri ziren sektoreko legeriak eskatzen duen dokumentazioa, Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren V. eranskineko formularioa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean, Planaren gainean interesa izan dezaketenak identifikatzeko.

Dagokion legerian ezarritako epea amaituta, administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulten izapidetan jaso dira erantzunak, eta espedientean dago emaitza.

Jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak bazituela behar beste judizio-elementu ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan dioenaren arabera.

ZUZENBIDE-OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, hauxe da ingurumen-ebaluazioaren xedea: ingurumenean ondorio adierazgarriak eragin ditzaketen planen ingurumen-ebaluazioa arautu behar duten oinarriak ezartzea, ingurumenaren babes-maila handia bermatuz, garapen jasangarri bat sustatzeko helburuarekin.

Halaber, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorren (3/1998, otsailaren 27koa) 42. artikulua arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek modu egokian bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo da ingurumenaren gaineko eraginei buruzko analisia, betiere kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a) artikuluan xedatutakoa aplikatuz, ingurumen-ebaluazio estrategiko arrunta egin beharko zaie edozein administrazio publikok abian jarritako edo onetsitako planei eta programei, bai eta horien aldatzeki ere, baldin eta plan eta programa horiek egitea eta onartzea legezko edo erregelamenduzko xedapen batek eskatzen badu, legez ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa behar duten proiektuak etorkizunean baimentzeko esparrua ezartzen badute, eta arlo hauei buruzkoak badira: nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, akuikultura, arrantza, energia, meatzaritza, industria, garraioa, hondakinen kudeaketa, urbaliabideen kudeaketa, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren okupazioa, itsas ingurunearen erabilera, telekomunikazioak, turismoa, hiri- eta landa-lurraldearen antolamendua edo lurzoruen erabilera.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legeak xedatzen duenez, plan baten ingurumen-ebaluazio arrunta hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organoak ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehaztea, ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean. Arau horrek 18.1. artikuluan xedatzen ditu hasiera-eskabideari erantsi beharreko dokumentuak, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabaltzeko eta osatu egiten du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumeneko-azterlanaren irismen-dokumentua zehazte aldera, aintzat hartu dira abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II.

eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukiari eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte azaldutakoari jarraikiz, espedienteko txostena aztertu da, eta xedapen hauek guztiak ikusi dira: 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Herriko Ingurugiroa Babestekoa; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen Ebaluazioari buruzkoa; 211/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzekoa; 77/2017 Dekretua, apirilaren 11koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzekoa; 39/2015 Legea, urriaren 1koa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 40/2015 Legea, urriaren 1koa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena, eta aplikatzekoa den gainerako araudia. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT

Lehen. Irismen-dokumentua formulatzea, ingurumen-ondoreetarako bakarrik, Ibarzaharra 04, AIS_IB_RM04 industria- eta zerbitzu-arearen Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren ingurumen-ebaluazio estrategikoari dagokiona, Sestaoko eta Trapagarango Udal Plangintza Urbanistikoaren Bateragarritze Planaren hiri-lurzoruan (Plana, hemendik aurrera), hemen jasotzen diren terminoetan:

1.- Plana aldatzeko xedea

Ibarzaharra 04 AIS_IB_RM04 industria- eta zerbitzu-eremuen antolamendu zehatza ezartzea da planaren xedea, Sestaoko eta Trapagarango Udal Plangintza Urbanistikoaren Bateragarritze Planak duen egitura-antolamenduaren arabera - Trapagaran, Ibarzaharrean eta inguruetan, behin betiko onartuta 2012ko apirilaren 3an.

7. erabilera da Ibarzaharra 04, AIS_IB_04 arearen berezko erabilera. Ekoizpen-erabilera. Kategoria industriala. 3. azpikategoria (bizitegi-zonetan onartzen ez den industria-jarduera, bai, berriz, industrialdeetan eta industria-parkeetan, edo hirugarren sektoreko erabilerarako industrialde mistoetan). Hainbat jarduera ezartzen uzten du 3. industria-azpikategoriak: industriaren berezkoak zein biltegitratzekoak, jendearentzako zuzeneko salmentarekin edo salmentarik gabeko banaketa, erakusleho-industria edo I+G+B industria aurreratua.

“Establezimendu komertzial handiak” ezartzeko erabili ahalko da sestra gainean eraikitako 4.527,67 m² baino txikiagoko kopurua.

Era berean, 5. erabilera ezartzeko baimena ematen da. Bizitegia. 5. kategoria. Hotel erabilera, eraikin-profil hau edukiko du: beheko solairua eta 6 solairuko altuera. Gainerako azpieremuetako eraikinetan, beheko eta lehen solairuak erabiliko dira (horretaz gain, sotoak egitea baimenduko da aparkalekuak, instalazioak, trastelekuak edo biltegi osagarriak jartzeko).

Bide-ardatz baten bidez egituratzen da area, 8. ardatza, zeina area mugakidea antolatzean aurreikusitako bidearen luzapena den (Ibarzaharra 06). Arearen mendealdean dagoen BI-3746

errepidearen loturaraino luzatzen da ardatza, biribilgune berri baten bidez. Tokiko bide-ardatz honen bi aldetara, jabari publikoko aparkalekuak daude, baita aparkalekuen zuzkidura-lurzatia ere.

Jarduera ekonomikoko lau lurzati edo azpizona konfiguratu dira (SZ_IL_01 02 03 y 049) eta "industria arineko azpierzutza" sailkatuta daude; haietan, ekoizpen-jarduera industrialak erabiltzeko baimena ematen da 3. kategorian. Lurzoru guztiak 56.097,80 m²-ko azalera du.

Azpieremua	Azalera	Sestra gaineko eraikigarritasuna	Eraikigarritasuna Sestrapean	Profila
SZ_IL_01	19.500 m ²	3.553 m ² t	4.500,00 m ² t	BS+1
SZ_IL_02	17.692 m ²	4.000 m ² t	4.643 m ² t	BS+1
SZ_IL_03	18.905 m ²	21.205 m ² t	6.458 m ² t	BS+1
SZ_IL_04	1.227,65 m ²	7.350 m ²	2.453 m ² t	BS+6

Ekoizpen-jarduera industrialeko azpierzutzetan, 36.108,00 m²t-koa da sestraren gaineko hirigintza-eraikigarritasun osoa, eremuan gauzatutako eraikigarritasuna baino txikiagoa.

Gune libreen tokiko sistemen SLEL_01 02 03 eta 04 azpierzutek 4.387,00 m²-ko azalera hartzen dute guztira eta, arearen mendebaldeko eta hegoaldeko mugetan daude hesi berde bat sortzeko bideen ondoan, udaleko bide orokorren aurrean eta Ibarzaharra 05 eremuaren mugan.

Trapagaran-Sestaoko SLEP_01 azpierzutek 549,10 m² ditu eta ekipamendu publikoen erabilerari bideratutako lurzati independentea da. Arearen hegoaldeko muturrean dago, oso-osorik Trapagarango udalerrian eta Sestaoko udalerriari dagokion erabilerari bideratutako eraikigarritasuna ere hartzen du.

Tokiko bide, aparkaleku eta espaloietarako diren SLVM 01 eta 02 azpierzutek 9.272,70 m²ko azalera osoa hartzen dute.

Gainerako azpierzutek energia elektriko eta gasez hornitzeko sareetarako erabiliko dira. Gas-azpiegituraren tokiko sistemak gasez hornitzeko presioa murrizteko zentroa hartuko du arean proiektatutako eraikinetan. Bestalde, transformadore elektriko bat jarriko da azpiegitura elektrikoaren tokiko sisteman.

Azalera haietaz gain, arean sartu da udaleko bide-garraioaren sistema orokorrari egindako lagapen bat, BI-3746 errepidearen aurrealde osoan, 1.100,50 m²ko lagapen-azalera duena gutxi gorabehera (SGVM 01 azpierzutea).

2.- Irismen-dokumentua

A. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta jasagarritasun-irizpide aplikagarriak

Onarpen orokorreko araudietatik, estrategietatik eta programetatik eratorritako ingurumen-helburuak hartuko dira aintzak Plana prestatzeko funtsezko oinarritzat; batik bat, IV. Ingurumen Esparru Programa 2020ren helburu estrategikoak eta jarduera-ildoak. Zehazki, planak 1.3 jarduketa-ildoaren 9. jarduketa integratu beharko du, honako hau ezartzen baitu: *“Biztanleria-dentsitate handiagoak lehenetsiko dituen, erabileren konbinazioa indartuko duen eta lurzorua kontsumoa optimizatuko duen lurralde-antolamendu adimenduna ezartzen laguntzea, lurzorua berrerabilera eta berroneratzea lehenetsiz”*.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 2. artikulua aplikatuz, honako hauek dira Planaren ingurumen-ebaluazioa gidatu beharko duten garapen jasangarriaren printzipioak:

- a) Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea eta lehendik ere artifizialduta dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea irisgarritasuna sustatzeko asmoz, lurzorua erabileren plangintza integratuaren, mugikortasunaren, eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
- c) Lurzorua zigilatzea murriztea, lurzoru jasangarritasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Baliabide naturalen kontsumo jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzoru eta materialak.
- e) Habitata eta espezieak, ingurumen naturala eta konektagarritasun ekologikoa zaintzea eta hobetzea.
- f) Paisaia eta kultur ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- g) Energia-aurrezpena, energia eta efizientzia berriztagarrien erabilera eta kogenerazioa sustatzea.
- h) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien mende bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- i) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabidearen erabilera jasangarria ere.
- j) Klima-aldaketaren aurreko zaurgarritasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitze neurriak integratuz.
- k) Arrisku naturalak gutxitzea.

Horretaz gain, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorrean bildutako irizpideak (otsailaren 27ko 3/1998 Legea) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuan bildutako irizpideak jaso beharko ditu.

B. Geografia-eremua eta ingurumen-arlo garrantzitsuak

Hiri-lurzorutzat dago sailkatuta Ibarzaharra 04, AIS_IB_RM04 industria-arearen eta zerbitzu-arearen Plan Bereziaren xedleko eremua (Plana, aurrerantzean), zeinak ekoizpen-jarduera industriaren berezko erabilera duen Trapagarango udaleko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearekin bat etorriz.

73.125 m²-ko azalera du eta Sestaoko eta Trapagarango udalerrietan dago. Ia erabat horizontala da eta +2.85 batez besteko kotan dago, salbu BI-3746 errepedearen mugan, zeinak mendebaldean mugatzen baitu eremua eta +5.00 kotan dagoen. Eskuineko ertzean, Ballonti eta, ezkerreko ertzean, Triano (edo Granada) ibaien artean dago.

Babcock Wilcox industria-enpresako sortze-pabiloiek betetzen dute, zati handi batean, Ibarzaharra 04 arearen azalera, baita bulegoen kokaleku diren eraikin osagarriak ere. Gaur egun, lur-eremu horiek ez dute industria-jarduerarik eta bertan behera daude utzita, instalazioak arpilatuta eta suntsituta baitaude. Oraindik ere daude urbanizazioaren eta, zati batean eraitsitako eraikinen eta pabiloien hondarrak.

Hortaz, industria-jarduerako arean kokatzen da eta bide-ardatz garrantzitsuen ondoan: A-8 autobidea, Ballontiren ardatza eta, BI-644 eta BI-3746 errepideak.

Eremuan ez dago elementu natural esanguratsurik, landaredia erruderal nitrofiloa du eta ez du Europar Batasunaren intereseko habitatik, ezta gune babesturik edo interes natural handiko bestelako espaziorik ere. Soil-soilik adierazi nahi dugu Galindoko padurak izeneko interes geologiko areetan sartuta dagoela zonaldea; hala ere, guztiz aldatuta daude antropizazio-maila handia baitute.

Ballonti (edo Granada) eta Triano ibaiaren Uholde Arrisku Handiko Eremuan dago area (UAHE - ES017-BIZ-IBA-02), ia osorik lehentasunezko fluxu-eremuaren barruan eta, gainerakoan, 100 urteko errepikatze-denborako uraldiak ukituta.

Lurzorua kutsa dezaketen jarduerak eduki dituzten edo dituzten lurzoruen inbentarioan jasotako lurzoruetan dago kokatuta eremu osoa. Eta ez dago zaurgarritasun nabarmenik akuiferoak kutsatzeko (irailaren 30eko 165/2008 Dekretu bidez onartu zen inbentarioa).

Ia industria-eremu osoa Bizkaiko foru-errepideen zortasun-eremu akustikoaren eraginpean dago (4523/2013 Foru Agindua).

C. Jarduketak kokatzeko eremu desegokiak

Bateragarritze Planean hartu zen kontuan eremuaren uholde-arriskua. Horretan ezarri zen +5 kotatik gora jarri behar zirela eraikuntzaren solairuak. Arrisku hori saihesteko, eraikin berrien sestra +6.30 kotatik gora dago Planean, babestuta egoteko helburuari lotuta, baita 500 urteko errepikatze-denborako uraldietan ere. Horri dagokionez, haxe adierazten da 2019ko uztailaren 29ko Uraren Euskal Agentziaren txostenean: Plan honetan planteatutako jarduketak bateragarriak dira Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren (UAKP) egiturazko neurriekin eta aipatutako Agentziak emandako txostenekin; hori dela eta, ez da eragozpenik aurkitu Planean proposatutako garapenean.

Kontuan hartu behar dira urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren arabera ezarritako mugak (EAEko hots-kutsadurari buruzkoa da dekretua). Aipatutako dekretuko 36. artikuluan xedatutakoa betetzeko, inpaktu akustikoari buruzko azterketa erantsi behar da aipatutako arauaren 37. artikuluari eta hurrengoei jarraikiz. Bestalde, babes akustikoko eskakizun zorrotzagoak eskatzen dituzten erabilerak onartzeko aukera justifikatu beharko da, hartzaileetan bermatzen denean dekretu horretan eta erabilerari horietarako aurreikusitako kalitate akustikoko helburuak betetzen direla, betiere aipatutako 213/2012 Dekretuaren III. eranskinaren 1.2.e) puntuan jasotzen den bezala.

Ez da eremu desegokirik hauteman, berriz, Planak proposatutako jardueretarako.



D. Aurretiazko kontsultetako erantzunen ingurumen-azterketa laburra

Jarraian, eraginpeko administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsultazapidean jaso diren txostenetako ingurumen-arloko eduki garrantzitsuenak jaso dira:

- Jabari publiko hidraulikoaren eraginari dagokionez, Uraren Euskal Agentziak emandako administrazio-baimen berezia behar dute proposatutako antolamenduak eta jabari publiko hidraulikoaren babes-zerrendetako jarduketek. Eraikuntzaren urrutiratze-tarteak bateragarriak dira Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean ezarritakoarekin. HAPBren dokumentazioari atxiki beharko zaio erakunde kudeatzailearen txostena (Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa), zeinak justifikatzen duen egungo azpiegiturak nahikoak direla eskaera berrien eta saneamenduko karga berrien zerbitzuaren betebeharrak asetzeko.
- Uholde-arriskuari dagokionez, Plan honetan planteatutako jarduketak bateragarriak dira Uholde Arriskua Kudeatzeko Planaren (UAKP) egiturazko neurriei eta, Planaren eremuari dagokionez, Uraren Euskal Agentziak emandako txostenekin, Ebazpen honen aurreko apartatuan adierazi bezala.

Beste alde batetik, drainatzeko sistema jasagarrien erabilera sustatu behar da, kontuan hartuz eremuaren azalera, zeinak hirigintza-garapen berriak egitean gerta daitezkeen jariatze-igoerak gutxituko dituen, oztopatutako arroen eraldatzeak saihestuz, Plan Hidrologikoaren 44.1 artikuluan adierazitakoa betetzeko.

- Kontuan hartuz historikoki kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak izan dituen lekuan dagoela Planaren eremua (48084-00004 lurzatia), beharrezkoa izango da lurzorua kalitateari buruzko adierazpena izapidetzea, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 23. artikulua eragozkeraren bat gertatuz gero eta edozein esku-hartze egin aurretik.

E. Kontuan hartu beharreko funtsezko alderdiak eta ingurumen-azterlan estrategikoan duten irismena

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen IV. eranskinean ezarritako gutxieneko edukia bildu beharko du ingurumen-azterlan estrategikoak, eta hori osatu egin beharko da urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotzen denarekin (211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duena).

Aurrekoarekin bat etorritik, garatuko diren apartatuek honako eskema metodologiko honi jarraitu beharko diote:

1. Edukia, helburuak eta egokiak diren beste plan eta programa batzuekiko harremanak.
2. Egungo ingurumen-egoera.
3. Ingurumenean gerta daitezkeen efektu esanguratsuak.
4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak.
5. Alternatibak aukeratzeko prozesua.

6. Ingurumena zaintzeko programa.
7. Laburpen ez-teknikoa.

Ebaluatzekoa den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste dugu ingurumen-azterketa estrategikoak -aurrerantzean, azterketa- behean azaltzen diren alderdiak landu behar dituela, bakoitzari ondoren adierazten den zabaltasun eta zehaztasuna emanda:

1 Edukiak, helburuak eta harremanak beste plan zein programekin

Azterlanak planaren helburu nagusien laburpen txiki bat izango du eta era espezifikoan justifikatu beharko du nola hartu diren kontuan Ebazpen honetako Lehena.2.A apartatuan jasotako ingurumena babesteko helburuak eta, printzipio eta irizpide jasangarriak. Justifikazio hori bai arauetan bai planean bertan ezarritako adierazleen eta mugen erabileran oinarrituko da.

Era berean, ingurumena babesteko irizpideak, helburuak eta xehetasunak zehaztuko dira, zeinak hierarkian gorago dauden eta aplikagarri zaizkion planetan edo programetan egon daitezkeen. Ingurumen-txosten estrategikoak hierarkikoki goi-mailakoak diren aipatutako lurralde- eta sektore-antolamenduko planekin bateragarria dela dioen analisi bat aurkeztu beharko du. Zehazki, eta beste batzuen artean, honako plan hauek hartuko dira kontuan:

- Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partziala.
- EAEko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.
- Bizkaiko Errepideen Lurralde Plan Sektoriala.
- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa, Espainiako aldea (2015-2021); bereziki uholde-arriskuko zonei lotutako zehaztapenak.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana.
- Sestaoko eta Trapagarango Udal Plangintza Urbanistikoaren Bateragarritze Plana.

Hierarkian gorago dauden plan edo programa horiek ingurumen-ebaluazioaren prozeduraren batean sartuta badaude, planaren helburuari edo eremuari ukitzen dizkieten ingurumen-ebaluazioaren adierazpen horien xehetasunak zehaztuko dira, baita ingurumen-adierazpen estrategikoetan edo une horretan indarreko araudia aplikatzean emandako dokumentu baliokideetan ezarritako ingurumen-ebaluaziorako irizpideak ere.

Arauetan eta estrategietan finkatutako ingurumena babesteko irizpideak, helburuak eta xehetasunak adieraziko dira argi eta garbi, baita hierarkiarik gordetzen ez duten bestelako planetan edo programetan ere, hainbat eremutakoak (erkidegokoa, estatukoa, autonomikoa edo tokikoa), plana diseinatzeko aplikatuz gero.

Ingurumen-azterlan estrategikoak plana gauzatzeko aurreikusitako jarduketak eta proiektuak deskribatuko eta kokatuko ditu, baldin eta ingurumenean oñorioak eragiten baditu. Jarduketak garrantzitsuenetik garrantzi gutxienera hierarkizatuko dira, eta kontuan hartuko

dira haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea, funtzionamendu-baldintzak eta baliabide naturalen kontsumoa.

Era berean, eragin-eremuari aplika dakizkiokeen gainerako planekin sor daitezkeen albo-ondorioak, ondorio metagarriak eta sinergikoak ekar ditzaketen jarduketak identifikatuko dira. Horrela identifikatu diren ondorioak, halakorik izanez gero, planaren eraginak identifikatzeko eta balioesteko apartatuan ebaluatuko dira. Xedea da helburu komunak lortzea, eta horrez gain, Planaren jarduketarako alternatibak aztertzea, baldin eta beste planen helburu eta jarduketa-ildoekiko gainjartze, gatazka edo bateraezintasunak agertzen badira.

2. Ingurumenaren egungo egoera

Azterlanak ingurumenaren egungo egoeraren alderdi garrantzitsuak deskribatu beharko ditu, eragin nabarmenak jasan ditzaketen guneen ingurumen-ezaugarriak zehaztuz eta plana aplikatu ezean gune horiek izan dezaketen bilakaera azalduz, klima-aldaketa bera ere kontuan izanik.

Era berean, garrantzitsua izan daitekeen edozein ingurumen-arazo identifikatu behar da, Ebazpen honen Lehena.2.B apartatuan identifikatu diren eremuei loturikoak bereziki, eta hirigintza-garapen berrietarako mugak, alegia, Ebazpen honetako Lehena.2.C apartatuan deskribatutakoak.

Horrez gain, lurraldearen ingurumen-unitate homogeenak definituko dira, horien paisaia-ezaugarrien eta baliabide naturalen azterketa integratutik abiatuta.

Lehen aipatutako ingurumen-alderdiak era kartografikoan adierazi beharko dira, Planarekiko proportzioa duen eskalan.

Ingurumenaren gaur egungo egoeraren deskribapena ingurumen-adierazleak erabilita bermatu beharko da; horretarako, Ingurumen Esparru Programaren adierazleen oinarritzko panelean jasotakoak erabili ahal izango dira, baita lurraldeari eta ingurumenari buruzko EUSTATenak ere, eta Ebazpen honetako aurreko apartatuetan adierazitako ingurumen-helburuen bilakaerari buruzko informazio garrantzitsua eman dezaketen beste batzuk.

Kontuan izan beharko dira, gutxienez, proposamenarekin alderatuta egungo egoerari dagozkion adierazle hauek:

- Eremu osotik, planteatutako beharrezko hornitzeko eraldatu behar den azalera naturalaren ehunekoa.
- Espazio libreetara zuzenduko den azaleraren ehunekoa.
- Kutsatuta egon daitezkeen eta erabilera berrietarako leheneratu diren lurzoruen azalera.
- Lurzoruen artifizializazioa: azalera artifizializatua guztizko azaleraren aldea.
- Atmosfera-, soinu- eta argi-kutsaduraren adierazleak.

Azterlanak aipatutako adierazleei buruzko datuak izan beharko ditu edo, halakorik ez badu, alderdi berak adierazten dituzten beste adierazle batzuei buruzkoak, kasu bakoitzean datu

zehatzak lortzeko zailtasunak justifikatuz, halakorik izatekotan. Era berean, proposatzen diren beste adierazle batzuei buruzko datuak jaso beharko ditu azterlanak, oro har, ingurumen-zaintzako programa aplikatzeko erreferentziazko ingurumen-egoera zehaztuta gera dadin.

3. Ingurumenean gerta daitezkeen efektu esanguratsuak

Apartatu honetan, ingurumenean eragin ditzakeen efektu adierazgarriak aztertu beharko dira, honako alderdi hauek barnean hartuta: biodibertsitatea, biztanleria, giza osasuna, fauna, flora, lurra, ura, airea, kultura-ondarea, ondare historikoa barne, klima-faktoreak, klima-aldaketa izan dezakeen eragina -bereziki, planari lotutako karbono-aztarnaren ebaluazio egokia-, ondasun materialak, kultura-ondarea eta paisaia; faktore horien arteko interakzioa ere kontuan izan behar da, eragindako ekosistemek eskainitako ingurumen-zerbitzuak ere ebaluatuz. Ondore horiek barnean hartu behar dituzte zeharkako efektuak eta metatze- eta sinergia-efektuak, epe labur, ertain eta luzean, efektu iraunkor eta aldi baterakoak, positibo eta negatiboak.

Planaren ondorioak identifikatu eta ezaugarritzeko, lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren arteko interakzioak aztertuko dira, baita sör daitezkeen edo larriagotu eta areagotu daitezkeen ingurumen-arazoak eta -arrikuak ere. Identifikatutako inpaktu guztietatik, berariaz nabarmendu beharko dira esanguratsutzat hartutakoak.

Bestalde, eremuaren antolamendu xehakaturaz ezartzen du planak, non etorkizunean hirigintza-garapena aurreikusten den; hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak 37. artikuluan adierazten duenaren arabera, eragin akustikoari buruzko ikerketa bat erantsi beharko zaio, zeinak etorkizunean hirigintzako garapena aurreikusita duten eremuak jasango duen eragin akustikoa aurreikusten duten zarata-mapak eta ebaluazio akustikoak barne hartu beharko dituen. Eragin akustikoari buruzko ikerketa horrek 37. artikuluan zehaztutako edukia jaso beharko ditu.

Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruei dagokienez, Lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko 4/2015 Legearen arabera, Lege horren 23. artikuluan deskribatutako egoeraren bat gertatzen bada, lurzoruaren kalitatearen adierazpena izapidetu beharko da, Lege horren 31.4. artikulua arabera: "[...] lurzorua kutsa dezakeen jardura edo instalazio bat dagoen edo egon den lursailaren edo lursailen antolamendu xehea jasotzen duten hirigintza-bitartekoak behin betiko onartu baino lehen, edo bitarteko horiek aldatu baino lehen, eta, ahal dela, prozedura horien hasierako faseetan."

Hala ere, leku horretan guztian edo zati batean lurzoruaren kalitatea ikertzea eragozten duten egoerak gertatzen badira, kasuan kasuko antolamendu-bitartekoa behin betiko onartu ahal izango da, lurzoruaren kalitatearen deklaraziorik gabe. Kasu horretan, Hirigintzako Ekintzen Programari hasierako onespina eman aurretik egin beharko da adierazpen hori; edo, horrelako programarik ezean, lekua barne hartzen duen kudeaketa-esparruko birpartzelazio- eta urbanizazio-proiektuei hasierako onespina eman aurretik, Lege honen 23. artikuluan sartutako egoeraren bat gertatuz gero.

Horregatik, inbentariatutako kokaleku batean edozein esku-hartze abian jarri aurretik, beharrezkoa izango da, lehenik eta behin, lurzorua kalitatearen azterketa bat egitea lurzorua kutsadurarekin lotutako arriskurik izango ez dela bermatzeko, ez langileentzat ez ezarritakoarekin bat lursailak izango duen erabilera berriko erabiltzaileentzat; bigarrenik, bertan utzitako hondakinak, eraikinak eta hondeatuko diren lurak egoki kudeatuko direla bermatu beharko da, indarrean den hondakinen arloko legedia betez.

Azterlanak balioetsi beharko du planak, obra-proiektuen edo jardueren dokumentu gehigarri gisa, paisaia-integrazioa azterlan bat eskatu behar duen, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuaren 7.3 artikulua arabera.

4. Prebentzio-, zuzentze- eta konpentsazio-neurriak

Aurreko puntuan identifikatutako ondorio adierazgarri bakoitzerako, ondorio horiek prebenitzeko, zuzentzeko edo, hala badagokio, konpentsatzeko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Ahal den heinean, proposatutako neurrietako bakoitza zein garapen-tresnatan inplementatuko den zehaztuko da.

Horrez gain, ingurumen-azterketa estrategikoak Planaren barnean egonik ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartuta dauden proiektuen aurreikuspena identifikatu beharko du etorkizunean baimendu ahal izateko eta, hala badagokio, proiektuak gauzatzean sortutako eraginak gutxitzea xede duten gidalerroak ezartzeko.

Prebentzio- eta zuzentze-neurrien artean, jabari publiko hidraulikoari buruzkoak eta gerta daitezkeen uholde-arazoak prebenitzera bideratutakoak aurreikusiko dira; horrekin lotuta, kontuan hartuko dira, bereziki, Uraren Euskal Agentziek azaldutako irizpideak planaren eremuari dagokion emandako txosten guztiak. Halaber, kontuan hartuko dira Ebazpen honen aurreko apartatuetan aipatu diren planetan ezarritako irizpideak: EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoa (2015-2021).

Hala badagokio, kalitate akustikoaren helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuko 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Azkenik, Ingurumen-ebaluazioari buruzko Legeak (21/2013, abenduaren 9koa) eskatzen duenez, ingurumen-txosten estrategikoak barnean hartuko ditu hainbat neurri, planak klima-aldaketa izan dezakeen eragina arinduko dutenak eta hartara egokitzea bideratuko dutenak. Xede horrekin, IHOBEk egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: «Klima-aldaketa egokitzeko udal-programak egiteko gida. Udalsarea 21 lan-koaderno» eta «Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketa egokitzeko (IHOBE)».

5. Alternatibak hautatzeko prozesua

Alternatibak hautatzeko prozesuaren laburpen arrazoitu bat hartuko du barnean, zeinak bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta ingurumen-arlokoa justifikatuko dituen, baita

Planaren helburuekin bat-etortzea eta proportzionaltasuna ere eta, bereziki, Ebazpen honetako aurreko apartatueta jasotako ingurumen-helburuekin. Azterketa horretan ebaluazioa egiteko modua deskribatuko da, bai eta aurkitutako zailtasunak ere; esate baterako, eskatutako informazioa biltzean beharbada aurkitu diren gabezia teknikoak, edo ezagutza eta eskarmentu falta.

6. Ingurumena zaintzeko programa

Azterlanak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzan ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Ingurumena zaintzeko programan, adierazleak deskribatuko dira eta, behar izanez gero, ondorio garrantzitsuenen erreferentzia-balioak, bai positiboak bai negatiboak.

Ingurumena zaintzeko programak azterlanean proposatzen diren adierazleak jaso beharko ditu, baita -kasu bakoitzean- datuak biltzeko erabiliko diren aldizkakotasunari eta metodoei buruzko proposamen zehatz bat ere.

7. Laburpen ez-teknikoa

Azterlanak barnean hartuko du aurreko epigrafeen arabera emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, herritarrek oro har ulertzeko moduko eta aztertutako alderdi guztiak lantzen dituen informazio zehatzarekin, baita informazio grafikoarekin ere, dokumentu autoaskia eta azterketarekiko berarekiko independentea izan dadin.

F. Hasierako onespeneren ondoren, sustatzaileak kontsultatu beharko dituen eraginpeko administrazio publikoak eta publiko interesduna identifikatzea

Ebazpen honetako kontsulten izapidea betetzeko erabilitako zerrenda huraxe hartuko da gai honen eraginpeko administrazio publikoen eta pertsona interesdunen zerrenda osatzeko, halaxe xedatzen baitute 211/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, 12. artikuluan, eta 21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, 22. artikuluan. Ingurumen-organoak, aurreko apartatueta aipatu bezala, honako hauei egin die kontsulta:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.
- Ura, Uraren Euskal Agentzia.
- IHOBE. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako Zuzendaritza Nagusia.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Zuzendaritza Nagusiaren Ingurumen Jasangarritasun Saila.
- Ekologistak Martxan Bizkaia.
- Eguzki, Eguzkizaleak Elkartea.

H. Jendaurreko informazioaren eta kontsulten modalitateak, iraupena eta epeak zehaztea

Informazioa eskuratzeko eta parte-hartze publikoa izateko eskubidea bermatzeko, organo erabakitzaileak edo, hala badagokio, organo sustatzaileak jendaurreko informazioaren izapidearen pean jarriko du plan honen hasierako bertsioa, ingurumen-azterlan estrategikoarekin batera, 45 egunez gutxienez.

Era berean, eta aurreko izapidearekin batera, Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzak gutxienez kontsultatutako erakundeen iritzia jaso beharko du, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 17. artikulua arabera, gehienez ere hamabost hilabeteko epea izango da azterlana eta arauaren 21. eta 22. artikuluetan aurreikusitako jendaurreko informazioa eta kontsultak egiteko, irismen-dokumentu hau erakunde sustatzaileari jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita.

I. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 16. artikulua arabera, kualifikazio profesional eta goi-mailako hezkuntzari buruzko arauen arabera behar besteko gaitasun teknikoa duten pertsonak egingo dute azterketa, eta Legearen eskakizunak betetzeko behar den kalitatea izango du. Azterlanaren egileak identifikatu behar dira, haien titulazioa eta, hala badagokio, lanbide arautua adierazita. Identifikazioak barnean hartuko ditu izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionalaren kodea edo helburu berberetarako balio duen beste dokumentu bat. Gainera, amaiera-data eta pertsona horien sinadura jasoko dira. Azterketaren edukien eta informazioaren fidagarritasunaren erantzule izango dira horiek, salbu eta Administrazioak berak frogagarri gisa emandako datuak.

Dokumentazioa aurkezteko, jarraibide hauek bete beharko dira:

1. Ingurumen-adierazpen estrategikoaren eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentuek koherentzia egokia errespetatu beharko dute, haien artean nahiz aurretik aurkeztutakoekin, halakorik bada, hartara erabakia hartu behar duten administrazio-organoen lana erraztuz eta ez eragotziz.
2. Arreta berezia jarri beharko da kasu bakoitzean dokumentu teknikoan apartatuak haien artean erlazionatzea ahalbidetzen duten datuak adieraztean (esaterako, apartatu batean proiektuko ekintzak deskribatzen badira eta beste batean ekintza horiek eragindako ingurumen-inpaktuak, bi kasuetan ekintzak izen berarekin aipatu beharko dira).
3. Beharrezkoa bada, datuak zein iturritatik lortu diren adierazi behar da.
4. Planaren, programaren edo proiektuaren dokumentazio grafikoa eta kartografikoa sartu behar da hala eskatzen duten apartatuetan. Planoak pdf formatuan entregatu beharko dira, georeferentziazituta; hau da, pdf-ek eremuko koordenatuak eduki beharko dituzte UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema ofizialean.



5. Analisi tekniko egokia errazteko, bistaratzeko pdf formatuko artxiboez gain, planoen kopia gehigarri bat entregatu beharko da shape formatuan (ahal dela, UTM30N ETRS89 erreferentzia-sistema erabilita), 10 Mb-koa baino gutxiagokoa izan beharko dena. Shape fitxategi horretan, 4 fitxategi hauek ZIP fitxategi batean entregatuko dira konprimatuta: .shp, .shx, dbf, .prj.

Lau fitxategiak bilduko dituen «eremua.zip» shape konprimatuaren adibidea:

- eremua_adibidea.shp
- eremua_adibidea.shx
- eremua_adibidea.dbf
- eremua_adibidea.prj

6. Plano guztiak kodearekin eta tituluarekin identifikatu behar dira. Halaber, honako hauek adierazi beharko dira: irudikatutako datuak zuzen interpretatzeko behar diren azalpenak eta sinboloak; eskala grafikoa eta zenbakizkoa, inprimatzeko formatua adierazita; sinadura eta noiz egin den.
7. Jatorrizko eskalatik murriztutako planoak aurkeztuz gero, zuzendu egin beharko da planoan jatorrian adierazitako eskala, aurkeztutako planoan oinarritutako neurketek ez dezaten akatsik izan.
8. Testuetan zehar aipaturiko eranskin, irudi, plano edo argazki guztiak dokumentazioarekin batera aurkeztuko dira. Erreferentzia horiek kasuan kasuko elementua erraz aurkitzeko moduan egingo dira, argi eta garbi.
9. Informazio jakin bat dokumentuko apartaturen baten zuzenketa gisa aurkeztekotan, eta aldi berean espedientean zuzendu nahi den apartatua mantentzen bada, informazio berriak adierazi beharko ditu zuzenketaren ondorioz jatorrizko dokumentuan ezeztatutzat edo ordezkaturat jo beharreko kapituluak, orrialdeak, epigrafeak, apartatuak, lerroak, esaldiak, koadroak, irudiak, planoak eta abar. Aurreko informazioaren bat osatzen edo zuzentzen duen informazioak egoera horren berri eman beharko du hasieran. Eskaera bat zuzentzeko aipaturako jarraibideak betetzen ez badira, izapide gehigarri bat eska dakieke, kontraesaneko edo inkongruenteak izan daitezkeen alderdiak argitzeko, eta horrek atzerapena eragin dezake prozeduraren ebazpenean.
10. Eskaera IKS-eem sistemaren bidez aurkeztu beharko da, aplikatzekoak diren fitxak eta formularioak erabilita, zeinak Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean eskura daitezkeen, helbide honetan zehazki:
http://www.euskadi.eus/web01-2inguru/es/contenidos/informacion/guia_iks/es_def/index.shtml
11. Dokumentu bat .pdf formatuan aurkeztu bada, gehienez 30 MB izango ditu, eta bilaketak egiteko aukera eman beharko du. Dokumentu handiagoak zatitu egin beharko dira, sisteman sartuko badira.

12. Aurkeztutako dokumentazio guztiaren aurkibide oso bat gehituko da, apartatu bakoitza zein orrialdetan dagoen zehaztuta. Aurkibidea aurkezten denean .pdf dokumentu baterako, adierazitako orrialde-zenbakia bat etorriko da orrialde hori aurkitzeko irakurketa-programaren «Joan orrialde honetara» komandoan erabiliko den zenbakiarekin.

13. Organo sustatzaileak, datuak igortzean, datu pertsonalak babesteari buruzko araudia betetzen duela bermatu beharko du beti.

Bigarrena. Ebazpen hau Trapagarango Udalari komunikatzea.

Hirugarrena. Ebazpen hau Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 15a

IVAN PEDREIRA LANCHAS



Ingurumen Administrazioaren Zuzendaria
Director de Administración Ambiental